
Proposamen metodologiko hark berrikuntza handi bat ekarri zuen: B eredua.

Euskara hutsean murgiltzearen aldeko apustua egiten zutenek ez zuten batere atsegin eredu hura; irakaskuntzan elebakartasuna helburu izanik, garai hartako diglosia egoera gainditu beharrean, irauli egin nahi zuten. Bestalde, guztiz kontrako iritzia zutenek, une hartako egoerari izan zitekeenik eta onena irizten zioten; eta seme-alabek ikasgai erdiak euskaraz ikastea gehiegizkoa iruditzen zitzaien.

BENETAKO ELEBITASUNEAN AURRERA EGITEKO, ITUNAREKIN BAT ETORRI ETA LEIAL JOKATU. XXI.EAN ELEBIDUNA

Javier Nogales

CCOO Irakaskuntzako idazkari nagusia

Helbide elektronikoa: javiernogales@euskadi.ccoo.es

1. ELEBITASUNAREN ARLOAN ORAIN ARTE LORTU DENA EZ DAGO ULERTZERIK, OINARRIAN DUEN AKORDIO-SAREA KONTUAN HARTU EZIK.

Irakastereduen garapenaren eta bilakaeraren lehenengo azterketa egiteko, testuinguru historikoa aurkeztu behar da. Zalantzarik gabe, Gernikako Estatutua —elkarbizitarako ituna azken batean— eta hizkuntzen koofizialtasuna izan ziren abiapuntuak. Estatutuaren ondoren, arrapaladan etorri ziren Euskararen Erabilera Arauzkotzeko Legea 1982an eta Irakastereduen Dekretua 1983an. Arau hauek ezingo ziren onartu, aldez aurretik konpromiso eta adostasun-maila handia izan ez balitz.

Hezkuntza-eskaintzari dagokionez, akordioek irizpide teknikoak eta pedagogikoak biltzen zituzten. Horien artean garrantzi berezia zuten honako hauek: irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan ama-hizkuntza tresna gisa erabiltzeak; inguruari zor zitzaion begiruneak; eta ikastetxearen zona-ko aniztasun soziolinguistikoa errespetatzeak. Horrek ez zuen esan nahi, hala ere, hizkuntza-murgilketa prozesuak martxan hasiko ez zirenik. Sor-tutako hiru irakastereduek, A, B eta D ereduek alegia, UNESCOren araua babesten zuten, ama-hizkuntzan eskolatzeko eskubidea, hain zuzen ere.

Proposamen metodologiko hark berrikuntza handi bat ekarri zuen: B eredua. Euskara hutsean murgiltzearen aldeko apustua egiten zutenek ez zuten batere atsegin eredu hura; irakaskuntzan elebakartasuna helburu izanik, garai hartako diglosia egoera gainditu beharrean, irauli egin nahi zuten. Bestalde, guztiz kontrako iritzia zutenek, une hartako egoerari izan zitekeenik eta onena irizten zioten; eta seme-alabek ikasgai erdiak euskaraz ikastea gehiegizkoa iruditzen zitzaien.

Hiru eredu hauek oso bilakaera desberdina izan dute gure komunitateko bi sareetan. Testuinguruak ezaugarri hauek izan ditu: beherakada demografiko handia, hezkuntza-sareen arteko konpetentzia handia, garrantzi handiko erreformak eta politikan zalantzak eta ezegonkortasun handiak. Gai garrantzitsuak guztiak ere, baina une honetan ez gara hasi-ko horiek aztertzen.

Sistemaren hasierak irakasleak euskalduntzeko programaren (IRA-LE) bultzada izan zuen, eta 1992an EAJ, PSE, eta EE alderdiek "Eskola

Itunerako" adostu zuten akordioaren garapenak osatu zuen. Eskola Itunari esker, bukatutzat eman zen 1989an hasitako ikastolen bateratzea eta oraindik ere gure hezkuntza-sistemaren ardatz diren bi lege onartzea ekarri zuen: Euskal Eskola Publikoaren Legea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Irakasle Kidegoen Legea. Hasieran IRALE programaren sorrerarekin bat egin bazuen, burutze unean irakasleak euskalduntzeko hamar urteko programa bat —Bost-Hamar— inplementatu zen.

Hamabost urte igaro ondoren, denok onartu beharko genuke akordio haiei esker gertatu zela sendotze-maila, bai eta euskararen aurrerakada ere. Norbaitek uste al du itunak euskaldunen artean bakarrik eginda aurrerapen demokratikorik egin daitekeenik? Pentsaera politiko homogeneoa izanik, gainera.

Berriro ere atzera begira jarriko gara, konturatzeko 1993ko Hizkuntza Eskakizunen Dekretuaren garapenaren ondorioz, orduan adostutakoaren garapen armonikoaren, orekatuaren, eta leialaren kaltetan hainbat neurri hartu direla. Besteak beste, politika hori ezartzen duena itun horiekiko beligerantea izan delako. Horren ondorioz, zenbait estigmatizazio gertatu da: gaztelaniaren presentzia gelan ez ezik, A eta B ereduak eta 2. HE lortu ez duten irakasleak ere estigmatizatu egin dira. Gizartean eztabaidatzen hasi aurretik, norbaitek erabaki duelako D eredu dela balio duen bakarra. Eta, zoritxarrez, jarrera honek laguntasun garrantzitsua du hezkuntza-administrazioan.

Desleialtasunak, ugari izanik, nahikoa ez eta erronka berriak gehitu behar zaizkio: sistemari kalitate handiagoa eskatzea, atzerritar asko iristea, eta beste arazo batzuk konpondu gabe jarraitzea, hala nola euskal gizartearen dualtasuna (dualtasunak presentzia handia du hezkuntzan).

Egoera honen aurrean, Hezkuntza Sailaren kudeaketak jokabide okerra eta alegala izan du, eta zenbaitetan legez kanpokoa ere bai. Batez ere, eta hau da larriena, ukatu ezin den errealitate baten aurrean, gure herriko hizkuntza aniztasunaren aurrean alegia, jokabide itsua izan du.

2. AURRERA JARRAITZEKO, AKORDIOAK BERRIRO ADOSTEKO PREMIAK LEIALTASUNA ESKATZEN DU ETA EUREN BURUA DESBERDIN IKUSTEN DUTEN KOLEKTIBOEN KONFIANTZA BERRESKURATU BEHAR DUTE.

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak, Patxi Baztarrrika jaunak, komunikabideen aurrean egin zituen lehenengo adierazpenetan zuhertasuna eta zentzua erakutsi zuen. "Euskaren inguruan adostasuna berreskuratu behar dugu, duela 22 urte gertatu zen bezala", esan zuen Baztarrrika jaunak; "Hizkuntzak elkarbizitzarako tresnak dira, eta gizarte hau batzeko eta sendotzeko balio behar dute"; "Euskara guztion ondarea denez, ez da dinamika baztertzaileetan oinarritu behar, bai, ordea, adostasunean"; "Hizkun-

Besteak beste, politika hori ezartzen duena itun horiekiko beligerantea izan delako. Horren ondorioz, zenbait estigmatizazio gertatu da: gaztelaniaren presentzia gelan ez ezik, A eta B ereduak eta 2. HE lortu ez duten irakasleak ere estigmatizatu egin dira. Gizartean eztabaidatzen hasi aurretik, norbaitek erabaki duelako D eredu dela balio duen bakarra. Eta, zoritxarrez, jarrera honek laguntasun garrantzitsua du hezkuntza-administrazioan.

Eskolak ez luke izan behar euskalduntze-prozesuko ia eragile bakarra orain arte bezala (Eskolak euskaldundu behar du leloak laburbiltzen du ideia hori), Gizarte osoak euskaldundu behar du leloak ordezkatu beharko luke. Horretan "tribu osoa" inplikatu beharko litzateke, gizarte osoa alegia, eta hezkuntza-sistemari ez litzaioke utzi beharko erantzukizun osoa gizartearen elebitasuna aurrera eramateko orduan. Aurkakoa eginez gero, frustrazio handiagoa sortuko baita ikasleen eta irakasleen artean.

tza normalizaziorako planak malgutasunez eta pazientziaz egitearen alde nago, anitza den herrialde baten errealtate soziolinguistikoak aintzat hartuta, euskal gizartean elebidunak heren bat baino ez direla kontuan harturik"; "Gizarte elebiduna eraikitzea ezinezkoa da, herritarrak ez baldin badira elebidunak".

Adierazpen hauek ez datoz bat Hezkuntza Saileko arduradun ohiak, Angeles Iztueta andreak, egin zuen lanarekin, ezta berak egindako lanaren espirituarekin eta berak idatzitakoarekin ere. CCOO-Irakaskuntza Baztarrikarekin ados dago. Berak esandakoa gaur egungo hizkuntza-ereduak berraztertzeke oinarria izan daiteke, irizpide pedagogikoak eta teknikoak ahaztu gabe eta agiri ofizialetatik okerreko ondoriorik atera gabe.

Egin diren azterketa guztiek agerian dagoena baieztatzen dute, hala nola 2003an egin zen PISAk eta 2004ko B2 txostenak: ama-hizkuntza euskara duten hurrek emaitza hobeak lortzen dituztela arlo honetan eta agerian uzten dituztela era sektarioan kudeatutako sistema honen ahuldadeak: 16 urterekin Bigarren Hezkuntzan graduatua ematea bi hizkuntzetan lortutako mailari begira egin beharko bagenu, ikasleen % 90ak ezingo luke ikasten jarraitu.

Honen azpian dagoen arrazoi nagusia edo nagusietako bat, euskara oraindik ere minoritarioa dela. Eskolak ez luke izan behar euskalduntze-prozesuko ia eragile bakarra orain arte bezala (*Eskolak euskaldundu behar du leloak laburbiltzen du ideia hori*), *Gizarte osoak euskaldundu behar du leloak ordezkatu beharko luke*. Horretan "tribu osoa" inplikatu beharko litzateke, gizarte osoa alegia, eta hezkuntza-sistemari ez litzaioke utzi beharko erantzukizun osoa gizartearen elebitasuna aurrera eramateko orduan. Aurkakoa eginez gero, frustrazio handiagoa sortuko baita ikasleen eta irakasleen artean. Horretarako gai ez bagara, denbora gutxiren buruan ahots gehiago entzungo dugu esaten ez duela merezi edo ez dela garrantzitsua.

Ondorioa atera dugu: azkeneko 23 urteetan indarrean dauden hizkuntza-ereduak ez dira aplikatu ez zehatz, ez leialtasunez, ez eta sortu eta adostu ziren pluraltasunez. Beraz, deskalifikatzen hasteak ez du zentzu handirik, are gehiago, beste gauza batzuen artean, bi puntu ez direla errespetatu kontuan izanik: ama-hizkuntzari zor zitzaion begirunea eta errealtate soziolinguistiko anitza. Egia da ikasle euskaldunen eskubideak ez zapaltzeko balio izan dutela (eta hori ez da gutxi), baina zenbait kasutan gaztelaniaz hitz egiten duten ikasleen eta irakasleen eskubideak urratu dituzte eta ez dute balio izan legeek ezarritako helburu handiak lortzeko. Emaitzak ikusita, mantentzen jarraitu nahiak ez du zentzu handirik (nahiz eta emaitzak partzialak eta zorrotasun handikoak izan ez, eta oker eta era interesatuan aurkeztu). Ez dakigu zer gerta zitekeen leialtasunez aplikatu izan balira, gizarte-estigmatizaziorik gabe, diskriminaziorik gabe, sektarismorik gabe, eskaria bideratu gabe, eta azken batean, garapean izan duen kudeaketa politizaturik gabe bideratu izan balira.

Berrazterketa eta erreformulazioa beharrezkoa da, eta, gainera, itun berriak egitearen alde gaude, baina horretarako zenbait berme eskatzen

ditugu; jokabide sektarioekin eta beldurtzeko jarrera batzuekin erreta gaudelako. Proposamen zehatz bat baino gehiago, jarrera aldaketa bat ikustea interesatzen zaigu (dena den, proposamena prestatuta dugu 2000. urtetik); eta euskal erakundeetan onartzen dena adostasun zabalarekin egin beharko dela eta onartutakoa errespetatzeko asmoarekin, horrez gain leialtasunez garatuko dela eta ez dela azpijokorik egingo.

Teknikoki bukatuta dagoen proposamen bat aurkezteko baldintza hauek bete beharko dira: ikasleek bi hizkuntzetan duten gaitasuna neurtzeko ikerketa zientifiko zehatza, esperimenez aldi bat eta emaitzak ebaluatu ondoren, adosten duguna aplikatzeko egutegia jartzea. Gure iritziz, gaur egungo jomuga aldatu nahi duenak euskararen elebakartasuna jartzeko helburuarekin aurrera jo nahi badu, elkarbizitzarako ituna apurtzearen alde ari da eta zalantzan jarriko ditu itun horren oinarriak.

Horregatik, eta azken urteotan gertatu direnak gertatu arren, jomuga Euskal Eskola Publikoaren Legeak ezartzen diguna dela berresten dugu. Marko hau nahikoa da benetako elebitasunean aurrera egiteko eta ikasleek Derrigorrezko Hezkuntza bukatzen dutenean gure erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan ikasten jarraitzeko aukera izan dezaten.

Horretarako, besteak beste, irakasle elebidunak beharko dira (dagoeneko baditugu % 85 irakaskuntza publikoan eta % 60 pribatu itunduan); dena den, erritmoak egokitu egin beharko dira eta lan-eskubideak ez dira urratuko. Ahalegin berriak egin beharko dira. Garai batean ikasleei euskaraz egiteko ezohiko neurriak hartu ziren bezala (behar zen titulazioa ez zuten irakasle "egokiak" adibide gisa), orain ere neurriak hartu beharko dira ikasleen eta beraien familien eskubideak eta irakasleen lan-eskubideen errespetua ondo uztartzeko.

Aldez aurretik lana egin ondoren, 2000. urtean egin genuen biltzarrean onartu zen ereduaren aldaketarako gure proposamen zehatza eta zabaldua. "XXI.lean elebiduna" izenburua hartu zuen (guztion eskura dago gure web orrian <http://ccooirakaskuntza.org>), eta Hezkuntza Sailera ere bidali genuen. Proposamen honekin eta behar duen aurretiko esperimenezkoarekin, arlo honetan behar-beharrezko itunak lortzen lagundu nahi du sindikatu honek.■

Teknikoki bukatuta dagoen proposamen bat aurkezteko baldintza hauek bete beharko dira: ikasleek bi hizkuntzetan duten gaitasuna neurtzeko ikerketa zientifiko zehatza, esperimenez aldi bat eta emaitzak ebaluatu ondoren, adosten duguna aplikatzeko egutegia jartzea. Gure iritziz, gaur egungo jomuga aldatu nahi duenak euskararen elebakartasuna jartzeko helburuarekin aurrera jo nahi badu, elkarbizitzarako ituna apurtzearen alde ari da eta zalantzan jarriko ditu itun horren oinarriak.